

Kandidatuei irakurtzekoak

EGAk B2

Ahozko probak abiatu aitzin

2025ko abenduaren 6ko ahozko azterketaren iragan-moldea

1.- Azterketa nola iraganen den.

Azterketa egitera **binaka** sartuko zarete eta **bi ariketa** izanen dituzue: dokumentu baten azalpena (aitzinetik hemen prestatua) eta bat-bateko elkarrizketa.

2.- Lehen ariketa: dokumentu baten azalpena

- Aurkezpen hau bururatzean, **15 minutu** inguru izanen dituzue ahozko saioan azaldu beharreko dokumentua prestatzeko.
- Eskema edo gidoia egin dezakezue. **Ez du balio testua berriz idaztea!** Dokumentuak hemen berean utzi behar dituzue, ezin dituzue gelara eraman. Probaren unean **eskema zuen aitzinean** izanen duzue, baina begiratzeko soilik, ez irakurtzeko. Oroit ez dela irakurmen proba.
- Azalpena egiteko **4 minutu** inguru izanen dituzue bakoitzak honako elementuak kontuan hartuz (hau antolaketa proposamena bat da, gure aldetik ematen dizueguna):
 - ⇒ testuaren aurkezpena laburra egitea: testu mota, idazle, testuingurua...
 - ⇒ mamiaren puntu nagusiak deskribatzea
 - ⇒ iritzi edo gaiaren hedadura posiblea proposatzea zuen baitatik
- Kontuan izan **zuen gain dela denbora hori betetzea**, nahiz eta aztertzaileek galdera bat edo beste egin dezaketen: 4 minuturaino heltzen lagunduko zaituztete ala alderantziz, 4 minuturen buruan isilaraziko.
- Elkarrizketa-lagunaren **azalpena artoski entzun** behar duzue, bururatuko duenean aztertzaileek galdera bat egingen baitizuite laburki erantzuteko (30/60" inguru).

3.- Bigarren ariketa: bat-bateko elkarrizketa

- Gaia azterketa-gelan berean banatuko dizuegu. Gai bera izanen da bi azterketarientzat, baina bi ikuspegitatik aztertua, bakoitzak zuena defenda dezazuen (adib.: *Kirolean hobeki dira talde jokoak, ala banakoak?*).
- Zuen **ikuspegiari jarraiki, arrazoitu** eta **bestea konbentzitzen** ahalegindu beharko duzue. Dena dela, **ez da baitezpadakoa** beti desadostasuna azaltzea edo une baten buruan iritzi aldaketa azaltzen ahal duzue.
- Orri bat emanen zaizue gaiari buruzko testu laburrekin, argudio zenbaitekin, biei berdina..
- Lehenik eta behin, **gaia zein den ulertu, eta esaldiak ikus** (60") eta **gero hasiko zarete bat-bateko saioarekin**.
- Batak bestea **mintzatzen utz**, bestea zer erraten ari den **entzun** eta entzun ondoren **erantzun**.
- Ariketaren xedea da **solaskidearekin aritzeko gaitasuna** neurtzea.

Orotara, bien artean, **15 minutu** izanen dituzue mintzatzen aritzeko: lehen ariketan (dokumentu garatzea) **8** minutu (4' + 4') eta bigarren ariketan (bat-bateko elkarrizketa) beste **7** inguru bien artean.

4. Hizkuntza-erregistroari dagokionez, lehen ariketan, azalpen ariketan, erregistro aski formala, idatzitik hurbil dena erabili behar duzue.

Bigarren ariketa ez da hain formala, zuen euskararen egin dezakezue, baina ezezagunekin ari zaretela kontuan harturik. Epaimahaiak, bien arteko oreka mantentzen lagunduko zaituzte: isilenak mintzaraziz eta kalakarienak geldiaraziz.

5.- Ebaluazio-irizpideak. Ahozko saioa ebaluatzeko aztertzaileek honako irizpideak izanen dituzte kontuan:

- Azalpenean: azalpenaren argitasuna eta egokitasuna, informazioaren hautua, informazioa nola antolatzen eta garatzen duzuen, ideien zehaztasuna, ideien arteko lotura...
- Elkarrizketan: hartzailearekiko harremana, solaskidearekin aritzeko gaitasuna, bat-batekotasuna, erranaldi eta erran-molde egokiak hautatzeko gaitasuna...
- Jarioa: (edo abiadura) Jario egokiko azalpena egiten duzuen ala ez; hau da, gutieneko abiadura duzuen edota etengabe mozturak egin dituzuen.
- Zuzentasuna eta aberastasuna: baliabideen aberastasuna, lexikoaren zehaztasuna eta hizkuntzaren zuzentasuna/egokitasuna.
- Ahoskera eta doinua: hitz mailegatuak ahoskatzean erdal doinua, azentu desegokiak... **erdarakadak saihestu.** "Enfin, voilà, mais, du coup..."

Oharra: zuen erranaldietan petto bat egiten baduzue eta ohartzen bazarete horretaz, zeuen burua zuzentzen ahal duzue: Erakuts dezakezue ohartu zaretela gaizki zela eta zuzendu dezakezue segidan.

6.- Epaimahaia. Epaimahaia bi aztertzailek osatuko dute. Batek saioa bideratuko du aurkezpena eta galderak eginez, eta bestea bereziki oharrak edo tenorea hartzeaz arduratuko da (isilik egoten bada, normala da).

7.- Ahozko saioan denbora errespetatzea oso garrantzitsua da, eta "nahikoa", "ongi da" edo halakorik entzuten baduzue, kontuan ukan denbora betetzen ari zaretela adierazten ari dela, eta ez ebaluazioaren emaitza.

8.- Telefonoak itzal.

9.- Galderarik ez bada, une honetatik aitzina, **15 minutu dituzue 1. ariketa prestatzeko.** Prestaketa-denbora bururatzean, azterketa-antolatzaileek lagunduko zaituztegu azterketa egin behar duzuen gelara. Zuen puskak har eta ez astirik gal bidean, denbora mugatua baitugu eta txanda anitz bada. Segidan prest izan lankideak segitzeko otoi eta gelara heltzean, aitzinekoek bukatu ez badute, atean beha egon, ahalik eta isilen (epaimahaikideak jinen dira zuen bila).

Bikote batean elkarrizketa-laguna etorriko ez balitz, aztertzaile batek hartuko luke haren lekua.